

700/2020 EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 29koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedrak sustatutako “Emakume zientzialaria izan nahi dut” lehiaketaren II. edizioko sariak ematen dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak 2020ko apirilaren 15ean emandako 594/2020 Ebazpenaren bidez, “Emakume zientzialaria izan nahi dut” lehiaketan aurkeztutako lan hoberenentzako sariak emateko oinarriak onetsi ziren.

Epaimahaiak “Emakume zientzialaria izan nahi dut” lehiaketaren II. edizioan aurkeztu diren lan hoberenentzako sariak emateko proposamena egin ondoren, txosten arrazoitu baten bidez, eta deialdiaren zortzigarren oinarrian ezartzen denez, ebazpen honek berretsi egiten du sariak emateko erabakia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak 2019ko uztailaren 3an emandako 1420/2019 Ebazpenaren bidez ematen dizkidan eskudantziak erabiliz.

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedrak sustatutako “Emakume zientzialaria izan nahi dut” lehiaketaren II. edizioan aurkeztutako lan hoberenentzako sariak ematea:

A MODALITATEA.- 2019-2020 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan matrikulatutako ikasleak:

- **Lehen saria** “YO QUIERO SER CIENTÍFICA” bideoarentzat, Adriana Peche ikasleak egina (Irabia-Izaga ikastetxea).

Tableta bat eta NUPeko promozio-materiala emango zaizkio, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bere ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

- **Lehen accesit** partekatua lan hauentzat: “MUJERES CIENTÍFICAS” bideoarentzat, Clara Marsellá ikasleak egina (Nuestra Señora del Huerto ikastetxea), eta “LA LLEGADA A LA LUNA” idazlan, marrazki eta bideoarentzat, Alejandro Corvo ikasleak egina (Santa Teresa ikastetxea).

NUPeko promozio-materiala emango zaie, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bakoitzaren ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

- **Bigarren accesit** partekatua lan hauentzat: “MARGARITA SALAS Y SU VECINO” ipuinarentzat, Inazio Fernández ikasleak egina (Cardenal Ilundáin ikastetxea), eta “NIK

ZIENTZALARIA IZAN NAHI DUT” aurkezpenarentzat, Aroa Sánchez ikasleak egina (Patxi Larrainzar ikastetxea).

NUPEko promozio-materiala emango zaie, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bakoitzaren ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

B MODALITATEA.- 2019-2020 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3. zikloan matrikulatutako ikasleak:

- **Lehen saria** “LA PIRÁMIDE DE RUBIK DE MARIE CURIE” lanarentzat, Paula Zapatero ikasleak egina (Santo Tomás ikastetxea, Iruñea).

Tableta bat eta NUPEko promozio-materiala emango zaizkio, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bere ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

- **Lehen accesita** “LOS INSECTOS DE MI JARDÍN” lanarentzat, Sara Roldán ikasleak egina (Santo Tomás ikastetxea, Iruñea).

NUPEko promozio-materiala emango zaio, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bere ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

- **Bigarren accesita** “YO HOY PONGO MI PIEZA, YO TAMBIÉN SOY CIENTÍFICA” bideoarentzat, Leyre Lumbreras, Noelia Romero eta Diana Briciu ikasleek egina (Santa Luisa de Marillac ikastetxea).

NUPEko promozio-materiala emango zaie, baita ikastetxearentzako liburu sorta bat ere, eta bakoitzaren ikasgelak aukera izango du Unibertsitatean zientziari buruzko jardunaldi batez gozatzeko.

Hirugarrena.- Sari horien zenbatekoa ondare-irabazitzat jotzen da, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 71. artikuluan ezarritako taulari eta jarraibideei jarraituz lortuko da atxikipen-ehunekoa. Ez da derrigorrezkoa dirua kontuan sartzea baldin eta sarien kostua edo merkatuko balioa 300 euro baino handiagoa ez bada.

Saritutako ikasleek berek edo, etortzerik ez badute, haien ordezkariak joan behar dute sariak banatzeko ekitaldira. Saritutako ikasle bat edo bere ordezkaria ekitaldira agertzen ez bada, saria eman gabe utzi dela aldarrikatuko da. Gutxienez 10 egun natural lehenago jakinarazi behar zaie irabazleei noiz izango den sariak banatzeko ekitaldia.

Hirugarrena.- Ebazpenaren berri ematea Ikerketako Errektoreordetzari, Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedrari, Ikerketa Zerbitzuari, Kontabilitate Atalari, Aurrekontuen eta Plangintza Ekonomikoaren Atalari eta Kontuhartzaitzari.

Halaber, Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedra arduratuko da ikasle irabazleen ikastetxeei ebazpenaren berri emateaz.

Laugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedraren “Teatro Yo quiero ser científica” web-orrialdean argitaratzea (<http://www.unavarra.es/cientificas-upna>), baira Unibertsitatearen egoitza elektronikoan ere.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari zuzendua, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horri dagozkion organoei zuzendua, hilabeteko epean lehenengo kasuan eta bi hilabeteko epean bigarrenen, biak ere ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 29an

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea